

Bilbo. "Postmodernitatea Guggenheim"

Askok erlatibismoaren mamua dakusate posmodernitatearen barnean. Denak balio omen du, ez dago ezer bata bestearen gainetik. Abangoardia historikoek defendatutako aurrerapen, berrikuntza eta utopia politikoaren aurrean, arte postmodernoak kultura popularraren, eklektizismoaren eta dekonstrukzioaren aldeko apustua egin du, iraganeko forma eta estiloak nahasiz, errepikapenean nola berrinterpretazioan interes berezia jarritz. Subjektibitatearen alde, ez da osotasun ez diskurtso egiazkorik bilatzen. Proposamen zatikatuak dira nagusi.

Baina, orduan, nola bereizi artearen eta ez-artearen, zein kalitatezko lanaren eta iruzurraren artean? Aniztasunaren bidetik, egun nagusi den erlatibismo erradikalaren ondorio logiko gisa aldarrikatu izan da artearen heriotza. Baina, arte garaikidearen pluraltasunak irizpide eta teoria artistikoen zabalkunde eta egokitzapen irekiagoa eskatzen badu ere, honek ez du ezinbestean artearen bukaera inplikatzeko: irizpide unibertsal eta betierekoen aurrean, artea definitu eta juzgatzeko irizpide eta kategoria lokalak posible dira.

Hala, japoniar kutsuko postmodernitatea puri-purian aurkituko du Guggenheimera joaten den bisitariak, Takashi Murakami artistari (Tokio, 1962) sekula eskaini zaion atzera begirako zabalenean. Hirugarren solairu osoa eskaini zaio erakusketari, eta denetik dago bertan: pintura, moda, eskultura, animazioa, baita merchandising objektuak ere; dena Murakamiren eskutik. Japoniarraren produkzio lana otaku kultura (manga, anime eta bideo joko zaleak deskribatzeko berba japoniarra), japoniar arte tradizionala, AEBetako pop kultura zein Surrealismoaren gisako hainbat eraginen fusio gisa ulertu behar dugu.

Oro har, artelanak ongi antolatuta eta girotuta aurkituko ditu bisitariak museoan, atmosfera koloretsu eta fantasiatsuan murgiltzea lortzen baita. Lanei dagokienez, aipagarriak dira bereziki eskultura lanetan Murakamik darabiltzan tonu kopuru izugarriak eta horien xehetasun eta akabera bikaina, pintura lanen indar estetikoak eta bi areto ilunetan proiektatzen diren bideo animazioak.

Arte garaikidearen eta ikusleen arteko haustura sekulakoa denean, Murakamik eten hau murriztu nahi du. Artista japoniarrak bere idatzietan superflat nozioa barneratu izan du: bi dimentsioen ezaugarriak jaso eta bere estilo artistikoa zehazteko balio izateaz gain, artearen beraren egitura kritikatzeko duen kontzeptua ere bada hau, goi mailako eta behe mailako kulturaren arteko mugak desegiteko asmotan.

Hala, Warhol jarraituz Murakamik sorturiko KaiKai Kiki enpresak enpresa tradizionalen egiturari jarraitzen dio, eta Tokio eta New Yorken dituen egoitzetan aldi berean artelanak, animazio lanak, proiektu zein

merchandising gaiak ekoizten dituzte bere langileek, munduan osoan barreiatuz guztion eskura jarri asmoz.

Bestalde, haren lanek irakurketa ezberdinak izan ditzaketen arren, kapitalismo kontsumistaren diagnostiko bat proposatzen du artista japoniarrak, eta ikusleak segituan identifikatuko ditu horren inguruko auzi funtsezkoenak: formaren eta ikuskizunaren garaipena edukiaren gainetik, sexualitatearen trataera hiper-artifiziala, idolo berrien beharra, artea merkaturatzea (Luis Vuitton-ekin lankidetzakasu); baita artearen ustezko balio epistemologikoa ere, zein berarekin dakartzan inplikazio ekonomiko-etikoak (zilegi al da artelan batengatik halako dirutza ikaragarriak ordaintzea?), besteak beste.

Aipagarria da testuinguru honetan Tan Tan Bo oka egiten izeneko tamaina handiko pintura, lore eta onddoen mundu apokaliptiko batean botaka eginez ageri zaigun munstro koloretsua, autodestrukziara iristerainoko gizarteak kontsumitzeko duen grina biziaren alegoria indartsua.

Baina, pop arte estatubatuarrarekin gertatu antzera, hurrengo galdera etor daskioke burura ikusleari Bilbon: gizarte kapitalista kontsumitzailea auzipean jartzen ari al da Murakami, haren hutsaltasuna eta gehiegikeriak agerian utziz, ala, osterak, honen gorazarre lotsagabea aurkezten ari zaigu? Segur aski, bietatik dauka zerbait. Arte garaikide globalaren sinbolo dugu Murakami, Jeff Koons edo Damien Hirst diren bezala, kapitalismoaren merkatu legeekin inork baino hobeto maneiatzen jakin baitu.

Kapitalismoaren oinarriak kritikatzeko dituzte neurriak, baina ezinbestean horietatik baliatzen da bere arte produkzioa aurrera eramateko. Horrek sortzen du eztabaida.

Erakusketari Murakamiren diskurtso kritikoa albo batera uztea eta azalkean geratzeko arriskua ikusten diot neurri batean; baina, oro har, hotz uzten ez zaituzten erakustaldi horietako baten aurrean gaude, eta proposatzen duen estetizismo erradikalaz haratago, aipatu auziez hausnartzeko abagune ezin egokiagoa da © Murakami.

Mikel Onandia